

# Ikastolen Jaietarako eredu praktiko berria

2019ko negua

Gipuzkoako Ikastolak

Zirriborrea Ikastolekin batera lantzeko




**KILOMETROAK**  
BIDEA  
kilometroakbidea.eus

# Testuinguru orokorra

## Zein fasean gaude?

- ▶ Dokumentazio historiko bilketa
- ▶ Azterketa kontzeptuala
- ▶ Prozesua zabaldu
- ▶ Aurkezpen publikoa
- ▶ Eredu praktiko lanketa teknikoa



# Fase honen lanketarako kontuan hartu beharreko bi gai

## ▶ Zubimusu ikastolarekin lanean

Kilometroak 2020 antolatzeko lehenen bilerak martxan daude. Ikastola guztien artean erabakitzen dugun eredia Villabona-Zizurkilen 20. urtean gauzatuko den Kilometroak-en egokitu eta gauzatu beharko da.

## ▶ Gipuzkoako Ikastolak

Eredu berria aztertu, erabaki eta konpartitu

- ▶ Zalantzak argitu
- ▶ Dinamika bateratzailea izan
- ▶ Ikastola bakoitzari eskatzen zaion konpromisoa argi adierazi
- ▶ Galderak eta kezak adierazteko dinamika sustatu eta eztabaidan integratu.

# Proposamenaren oinarria



**10 premisak**  
**3 ideia ardatz**

# Premisak oinarria hartuta

- 1, Ikastolen mugimenduaren misioaren isla
- 2, EHI sendotzeko (mugimendu-korporazio bezala) jaia
- 3, Ikastolen Jaia nori zuzentzen zaion argitu: Ikastolen komunitatea sendotu.
- 4, Kontsumoa ikuspuntu kritiko eta kontzientean aztertuz, partizipazioa areagotu (ludikotasunaren bitartez aurrez aurreko harremanak indartu)
- 5, Naziotasuna indartu
- 6, Misioaren arabera jaiaren xede ekonomiko-errentagarria birkokatu
- 7, Ikastolen aldeko jai eguna urte osoko prozesuaren emaitza
- 8, Jai(en) formatua(k): Berritzailea, garaikidea, eraldatzailea.
- 9, Jaiaren dimentsioa birkokatu
- 10, Ikasleak ahaldundu

# Hiru ideia ardatz

- **Harrobi kulturala**

- Ikastolak subjektu kulturalak dira.
- Gauza txikietan bada ere, Ikastolak Euskara eta Euskal kulturaren egile eta eragileak dira.
- Indar sortzaileak bildu, sustatu, dinamizatu eta argia eman behar zaie.

- **Ikastolatik plazara**

- Ikastola herrian beste eragile bat da.
- Kilometroak jaiak proiektu baten izaera berreskuratzen duen neurrian, gauza gehiago izango ditu bere inguruko beste eragileekin konpartitzeko.
- Ikastolak defenditzen dituen baloreak garatzeko, “plaza” beste eragileekin batera eraiki eta konpartituko dugu.

- **Atxikimendua lortzeko afiliazioa sortu**

- Kilometroak jaiak proiektu baten izaera berreskuratu nahi du.
- Proiektuak norabide bat hartuko du, bere nortasuna eraiki behar du.
- Proiektuaren testuingurua Ikastolen mugimendua da; proiektuaren eragileak proiektuarekin bat egiten duten pertsonak eta Ikastolak.
- Urteko finalitatea zehaztuz, horren lanketaren inguruan dinamika soziala piztu behar da.
- Proiektuaren sustengu ekonomikoari taldean erantzuteko konpromisoa hartu.

# Ikastolatik aisialdira; Ikastolatik plazara

Ikastolak ikasteko olak badira bere produkzio baliotsuena kultura da. Kultura k handiz ala txikiz, pertsonak duen jakinduria kolektibitatearen zerbitzurako utziz, kultura sozializatu egiten da.

- ▶ **Harrobi kulturala:** Kilometroak ekoizpen kultural hauetarako iparorratza edota motibaziorako gunea izan nahi du.
- ▶ **Ikastolatik plazara:** Euskal Herrian “plaza” asko daude eta “plaza” bakoitzak bere estetika garatzen du. “Ikastolatik plazara” ekimenarekin Euskara erabiltzen den espazio eta unea eraikiko dugu, baita euskal kulturari adierazpide ezberdinak eskainiko duen tarte ere

# Kilometroak: afiliazioa

## Zer da afiliazioa?

Multzo edota proiektu batekin atxikitzea, modu aktiboan multzo horretan norbere ekarpena egitea da afiliazioa.

Kilometroak Gipuzkoako Ikastola guztien jaia da. Jatorriz egon badago afiliazio izaera: Ikastolen mugimenduaren partaidea izatearen izaera. Denboraren poderioz afiliazioaren zentzua higitzen joan da.

Kilometroak eredu berri honekin Gipuzkoako Ikastoletan Kilometroak proiektuaren inguruko atxikimendua berreskuratu nahi dugu.

## Arlo organikoa:

- GILB
- Kilometroak topagunean parte hartu
- Proiektuaren antolaketa sareko kide izango den pertsona (guraso) bat izendatu

## Partizipazioa

- Harrobi kulturala
- Jaialdi txikietan parte hartu
- Jaialdi Txikietatik Kilometroak egunera

## Arlo ekonomikoa

- Gure Zozketaren banaketa: 5 familia eta langile bakoitzeko
- Arropa salmenta: ikastola inguruko irteeretarako ikastolako giza baliabideak jarri (Koordinazioa eta materialaren hornikuntza Ikastola antolatzailea)
- Jaialdi txikiak ekonomikoki babesteko inguruko hainbat enpresen kontaktuak
- Kilometroak sustatu

**Arlo komunikatiboa:** Kilometroak barne organoan parte hartu (boletina...)



# Aldaketaren zantzuak



**Proposamen berria  
Jaialdi Txikiak  
Komunikazioa  
Ekonomia  
Kilometroak eguna**

# Kilometroak: Gipuzkoako Ikastola guztien jaia, baina baten ardurapena

## Ikastola antolatzaile bakarra baina ikastola guztien inplikazioa

Gaur egun erabiltzen dugun antolakundeak ikastola guztien inplikazio berdina lortzeko asko mugatzen digu. Ikastola bat urte bateko Kilometroak-en antolatzaile eta onuradun izateak beste ikastolen aldentzea suposatzen du.

## Kilometroak urteko topagunea

Aisialdiaren inguruan afiliazioa sortu behar dugu eta modu xumean hasita Kilometroak horren kokalekua izan beharko litzateke. Ikasturtearen hasieran Ikastola guztietan, edota topagune berezi batean, Kilometroaken prozesu osoaren azterketa eta azalpena egingo litzateke: alegia, Kilometroak prozesurako urteko kongresua antolatuko litzateke.

Kilometroak,  
urteko  
topagunea

Kilometroa  
k

# Proiektua, hezkuntza eta aisialdia: ludikotasunaren unibertsoa

**Prozesua:** prozesua bidea denez, emaitza bezain garrantzitsua egiten dugun bidea da.

Ludikotasunaren unibertsoaren arabera orain arte ezagutu dugun Erronka alde batetik eta Ikuskizuna beste aldetik dinamika bakar batean uztartu behar dira (Deiturak gainditu behar dira).

**Motrizitatea:** Gorputza sentitu, gorputza konpartitu, gorputza komunikatu, gorputza eta bestea, gorputza ala bestea, gorputza eta espazioa, gorputza eta tresna, gorputza eta taldea, ... eta gizakia, ... eta hizkuntza... Jolas eta jokoak testuinguru kulturalean: etnoludismoa.

**Adierazpen artistikoa:** Artearen sorkuntza, bi edota hiru dimentsiokoa; ahozkoasuna edota idatzizko literatura; hizkuntzaren erabilera ludikoa...

**Teknologiaren bidez arazoak konpondu:** Buruarekin pentsatu eta sortutako tresna eskuekin eraiki. Arazo bat konpontzeko ariketa kolektiboa egin, eraikuntza kooperatiboa sortu.

**Altruismoa, enpatia, kooperatibismoa:** taldean proiektu soziala garatu.

# Ekimenen garapena eta formatuak eta Ebaluazioa

## ► Doikuntzaren beharra:

Ez dugu berriro hurrengo 40 urteetarako eredu bat asmatu nahi. Urtetik urtera errealitatearekin bat egiten dituen ezaugarriak jaso eta gure jaian sartu nahi ditugu. Aldaketak arinak izateko horren ebaluazioak ere azkarra izan behar du. Ebaluazioa, beraz, jarraitua izateaz gain, amaieran konpartitua izan behar du. Horretarako gune garrantzitsuena foroa izango da.

**Jaialdi txikiak:** Urtean hiruzpalau jaialdi txiki antolatuko dira une ezberdinetan herrialdeko gune ezberdinetan ere. Bertan inguruko ikastolek hartuko dute protagonismoa eta bizpahiru ikastolen artean elkarlanean antolaketari ekingo zaio.

**Kilometroak:** Maiz esan dugun bezala, Kilometroak jaia urriaren lehenengo igandean antolatzen jarraituko dugu. Ez dugu jai “makroaren” aldeko apostua egingo, bai, aldiz, kalitate kulturalaren adierazpenean. Urtean zehar Ikastola antolatzailea ekimen ezberdinak antola ditzake bere herrian.

Kilometroak,  
urteko  
topagunea

Kilometroa  
k

Ebaluazioa eta  
doikuntza

# Jaialdi Txikiak

## EZAUGARRITZEA:

- Bakoitzak gai garrantzitsu bat izango du ardatz. Euskara, aisia/kirola, inklusibitatea eta parte hartzea.
- Jaiak 10 premisen arabera antolatuko dira eta orain arte hitz egindako ildoak jarraituko dute.
- Jai txiki hauek 3-4 ikastola artean antolatuko dira.

## ANTOLAKETA:

- Jaiak 3-4 ikastola eta Kilometroak ikastola antolatzailearen artean egingo dira.
- Kilometroak koordinatzailea izango da dinamizatzaile.
- Jaien egitaraua ikastolen autoekoizpenean oinarrituko da eta antolatzaileek malgutasuna izango dute.
- Herriko eragile guztiekin aukerak aztertuko dira.

# Jaialdi Txikiak

## ARDURAK / KOORDITZAILEA:

- Jai txiki guztiak Kilometroak koordinatzaile bat izango dute dinamizatzaile.
- Ikastolen arteko lotura lanak egingo ditu, jaia orokortasunean ikusiko du eta komunikazioa, ekonomia, etb... jarraipena egingo du.

## ARDURAK / IKASTOLA PARTEHARTZAILEAK:

- Ikastola bakoitzak arduradun bat ipini behar du lantaldea osatzeko (Gipuzkoako ikastola guztiak, ahal bada gurasoa). Gaiaren inguruko hausnarketa eta jaiaren diseinua egingo dute.
- Beren ikastoletan dinamizazio/sozializazio lana egingo dute.
- Ikastola bakoitzak autoekoizpenean dituen baliabideak jarriko ditu.

# Komunikazioa bir pentsatu

- Gipuzkoako Ikastolek Topagunean bere nahi eta behar komunikatiboak landuko dituzte.
- EHtik zehazten den komunikazio ildoarekin bat eginez, Ikastola antolatzaileak bere komunikazio ildoak sortu eta sustatuko du.
- Ekintzak ere logika berarekin antolatuko dira, hau da, Ikastola antolatzaileak dituen nahi eta beharren arabera bere inguruan sortu eta gauzatu diren ekintzak.
- Maila honetako komunikazio ildoak Ikastola antolatzailearen eskuan geratzen da.

Komunikazio esparrua bir pentsatu eta bir asmatu behar dugu. Proiektu bat martxan jarri. Proiektua gauzatzeko ekimenak aurrera eraman behar ditugu.

Partizipazio batzordea

Proiektuaren inguruan  
afiliazioa sortu

Aitortzarako ahotsa

Komunikaziorako bideak eta esparruak



# Naziotasuna:

## Ildo estrategikoa eta Euskal Herriko Ikastolen Jaiak

### ► Nazio mailako Ildo Estrategiko eta komunikatiboa

Nazio mailako Ildo Estrategikoaren zehaztapena interpretazio zabaletik ezarpen zehatzetara bideratuko da, hau da, nazio mailan urte baterako zehaztuko den Ildoa, lurralde eta jai bakoitzak asmatu beharko du errealitatean nola gauzatu. Eta horretarako bi bide egon daitezke: orain arte jai bakoitza modu autonomoan aritzea, edota modu koordinatuan, jaien artean proiektu bateratuak bultzatuz.

# Ekonomia

- Diru iturriak bermatu eta indartuko dira.
  - Jendearen atxikimendua (KMK egunean sarrera kutxetan)
  - Gure Zozketa
  - Arropa
  - Publizitatea, babesleak, erakunde publikoak...
  - Klikmetroak
  - Beste ekintzak
- Urtean zehar gauzatzen diren diru iturriei lehentasuna emango zaie.
- EHIkin batera, Ikastola antolatzaileak dinamizatuko du urte bateko ekonomia arloa.
- Urteko etekin ekonomikoa Ikastola antolatzaileak eramango du (EHI %20).
- Urtean zehar herrialdean egiten diren ekintzak (jaialdi txikiak, ...) Kilometroak dinamika orokorretik finantzatuko dira, hau da, autofintzatuak izango dira.

# Ekonomia

- Hainbat diru iturri herrialdeko ikastola guztien artean landuko dira, hala nola:

- **Arropa salmenta**

Teknikaria eta Ikastola antolatzailearen Arropa batzordea koordinatuta (datak, azpiegitura, salmentarako arropa, ...), herrialdean zehar egiten diren irteerak herrialdeko ikastola guztien artean partekatuko dira, hau da, ikastolako guraso eta langileek beren ikastolaren inguruan programatzen diren irteerak gauzatuko dute.

- **Gure Zozketa**

Herrialdeko Ikastoletako guraso eta langile guzti guztiek 5 txartel eskuratuko dute bakoitza bere inguruan saltzeko.

- **Publizitatea, babesleak, ...**

Gure proiektua babestu dezakeen entitateekin zerrenda bat osatzeko asmoz, Ikastola bakoitzaren inplikazioa eskatuko zaie.

- **Klikmetroak**

Ekimen honetan metroak atxikitze konpromisoa eskatuko zaie ikastolei. Urteetan metroak erosten duten komertzio eta enpresekin afiliazio lotura bat sortu.

# **Ikastolen aldeko jai eguna urte osoko prozesuaren emaitza**




**Ikastolen arteko topagunetik hasita Kilometroak egunerarte, urte osoko dinamika (jaialdi txikiak, ekimen ezberdinak,...)**

# Antolaketa praktikoa



Partehartzailea  
Tamaina doitu  
Zirkuitoaren logikarekin amaitu  
Guneen diseinua “harrobi kulturalaren” logikarekin  
Guk nahi dugun estetika landu



# Aurrera begira zer?



## Kronograma

# Kronograma (KMK20ri begira)

- ▶ 2018ko urrian: Azpitaldean hasi parte hartzen
- ▶ 2019ko ...
  - ▶ urtarrilean: Hastapen taldea eratu
  - ▶ Otsailetik apirilera
    - ▶ Komunikazio ildoak
    - ▶ Logoa
    - ▶ Batzordeak (oinarrizko taldeak)
  - ▶ Maiatzetik ekaina/uztailera
    - ▶ Eredu berria: Makrojaiak
    - ▶ Eredu berria: Ikastolen atxikimendua
    - ▶ Plangintzaren diseinua
    - ▶ Aurkezpen ekitaldiaren diseinua
    - ▶ Lehenengo BI eta BIE
    - ▶ Arropa/Denda
    - ▶ Biltegia
  - ▶ Irailean
    - ▶ Ikastolen Topagunea
    - ▶ Plangintzarako baliabideak zehaztu
    - ▶ Diru iturria lortzeko plana zehazten hasi
    - ▶ Aurkezpen ekitaldia landu
  - ▶ Urrian
    - ▶ Aurkezpen ekitaldia landu
    - ▶ Jaialdi txikiak hasi diseinatzen
    - ▶ GZ, Web, Publizitatea
    - ▶ Partizipazio lana martxan jarri
  - ▶ Azaroan
    - ▶ Aurkezpen ekitaldia
  - ▶ Abenduan
    - ▶ Plangintza gauzatu



# Kronograma (KMK20ri begira)

- ▶ 2020ko ...
  - ▶ urtarrilean: ?
  - ▶ Otsailean
    - ▶ Kilometroak Txikia
    - ▶ Jaialdi txikia
  - ▶ Martxoan
    - ▶ Hasi Kilometroak eguna antolatzen
    - ▶ Mendimetroak
    - ▶ Jaialdi txikia
  - ▶ Apirilean
    - ▶ Abesti eta bideokliparen aurkezpena

- ▶ 2020ko ...
  - ▶ Maiatzean
    - ▶ Jaialdi txikia
  - ▶ Ekainean: ?
  - ▶ Uztailean - abuztuan: ?
  - ▶ Irailean:
    - ▶ Ziklometroak
  - ▶ **Urriaren 4an**

## KILOMETROAK

# Proposamen aurrean



# Gipuzkoako Ikastolen konpromisoa

# Gipuzkoako Ikastolen konpromisoa

## Arlo organikoa:

- GILB
- Kilometroak topagunean parte hartu
- Proiektuaren antolaketa sareko kide izango den pertsona (guraso) bat izendatu

## Arlo ekonomikoa

- Gure Zozketaren banaketa: 5 familia eta langile bakoitzeko
- Arropa salmenta: ikastola inguruko irteeretarako ikastolako giza baliabideak jarri (Koordinazioa eta materialaren hornikuntza Ikastola antolatzailea)
- Jaialdi txikiak ekonomikoki babesteko inguruko hainbat enpresen kontaktuak
- Kilometroak sustatu

## Partizipazioa

- Harrobi kulturala
- Jaialdi txikietan parte hartu
- Jaialdi Txikietatik Kilometroak egunera

# Zer eskatzen diegu Ikastolei?

**Gaia aztertu eta posizioa hartu**

**Konpromisoa berretsi**

**Galdetegia landu**

**Maiatzaren 11ean Zarautzen Kilometroak bidea topagunean parte hartu**

## **Emandako materiala**

**Aurkezpena (pw pt)**

**Galdetegiak**

PREMISAK	PREMISAK GAUZATZEKO EGITASMOA
<u>1, Ikastolen mugimenduaren misioaren isla</u>	Komunikazioa birpentsatu
<u>2, EHI sendotzeko (mugimendu-korporazio bezala) jaia</u>	Nazio mailako Ildo Estrategikoa eta koordinazioa. Komunikazioa birpentsatu.
<u>3, Ikastolen Jaia nori zuzentzen zaion argitu: Ikastolen komunitatea sendotu.</u>	Ikastolen topagunea, proiektuaren inguruko afiliazioa, lurralde osoan jaialdi txikiak, ...
<u>4, Kontsumoa ikuspuntu kritiko eta kontzientean aztertuz, partizipazioa areagotu (ludikotasunaren bitartez aurrez aurreko harremanak indartu)</u>	Proiektu berriaren garapena. Ekimen eredu berria. Erronka eta Ikuskizun batzordeen eta eginkizunen mugak gainditu eta dinamika berria sortu.
<u>5, Naziotasuna indartu</u>	Talde Mistoa, Nazio koordinazioa, Nazio topaketak, Ildo estrategikoa eta komunikatiboa, ...
<u>6, Misioaren arabera jaiaren xede ekonomiko-errentagarria birkokatu</u>	Dirua bilketarako planteamendu berria eta zabala.
<u>7, Ikastolen aldeko jai eguna urte osoko prozesuaren emaitza</u>	Ikastolen arteko topagunetik hasita Kilometroak egunerarte, urte osoko dinamika (jaialdi txikiak, ekimen ezberdinak,...).
<b>8, Jai(en) formatua(k): Berritzailea, garaikidea, eraldatzailea.</b>	Ikastolak “Harrobi kulturalak” bihurtu eta “Ikastolatik plazara” bere jarduera eraman.
<b>9, Jaiaren dimentsioa birkokatu</b>	Partizipazio aktiboa indartuz, horren arabera jende etorrera sustatuko da. Kontuan hartu behar da ikuslegoa beti egongo dela.
<b>10, Ikasleak ahaldundu</b>	Proiektuak landuz eta garatuz, Ikasleen parte hartze aktiboa (erabakietarako zein ekimenetan) sustatuko da.